

inoz gure euskera maitea gure lurraldi honeetan galduko. Geuk daukagu ba azken berbea.

Hau holan dala, nundik nora jokatu daikegun edo zer egin leiteken esatera noatzue. Hona hemen nire ustez biderik onenak:

- 1 ... Euskeraz dakigun guztiok, batez bere gurasoak eta, beti euskeraz berba egin. Hau egin ezik ez dago ezer egiterik. Ostantzekoak ipinkiak jarreak baino ez ditugu izango.
- 2 ... Sortu barri dan ikastola indartu, umetxoak euskeraz ikasteko aukera euki dagien. Aramaiotar guztiok artu behar geunke ikastola horren ardura, al dogun neurrian lagunduaz.
- 3 ... Igaz gazte batzuen artean gabeko eskola bat asi eben. Eskola honeek ugaritu egin behar dira, eskolara ez dabilzan gazteak heuren euskera ikasteko edo errazteko bideak euki dagiezan.
- 4 ... Araban eskola batuak jarri daukuez. Hemetik aurrera ba, baserriko umeak eta kalekoak alakarregaz ibili beharko dabe. Horrek euskera baztartzeko arrisku aundia dakar. Behar-beharrezkoa dogu ba kaletar umei euskera erakustea. Hor-tarako Erriko arduradunak astean iru aldiz edo, erderazko eskola ostean, euskera erakustea lortu behar leukee, Naparruko erri batzuetan egin daben antzera. Diputazioaren laguntzaz ez litzake ain zaila izango hau.

Eta hau, ez bakarrik hemen, Aramaiona'ko alderdi honetan. Baita Olaetako alderdian bere. Hango umeak bere eskolara batura dabiltz orain, eta arrisku bardinean dabe euskera. Beharrezkoa dogu ba honetan gurasoak eta Erriko arduradunak alkatu eta zerbait egitea, gure alegin guztiak utsean gelditu ez daitezan.

- 5 ... Beste zerbait bere lortu beharrean gagoz. Baserriko umetxoak, nik entzun dotanez, ez daukee bost urte arte kaleko eskolara jasteko erarik. Beste umeak autobusetan jasten dituen bitartean heurak etxean gelditu behar. Ondo eta beharrezkoa da Erriko agintariak honetan bere aleginak egitea ume horreik besterik ez bada, ikastolara jasteko.

Ume horrentzako mesede aundia litzake eta alegin aundi barik lortu leitekena.

- 6 ... Erriko Agintariak heuren babespean artu behar leukee gure euskera era guztietara indartzea. Orain urte batzuk dirala Arabako alkateak hemen, Aramaiona'n, batu ziranean, gogor egin eben gure euskeraren alde. Arabako euskaldun erri bakarra dala eta ezelan bere ez galtzeko eskatu euskuen. Eta Diputazioko agintariak heuren laguntza eskeini bere bai. Laguntza hori eskuratzeko unea dogu. Nik uste dot, gaur emengo agintariak Euskaltzandikoekaz alkar artuta dei bat egin behar dautsezuela bai Diputaziokoei bai Arabako Dirukutzakoei, kulturaren alde lanean dabilzen ezkerro, gure euskera heuren ardurapean artu eta aurrera ataratzeko behar diranak egin dagiezan. Izan bere Araba osoarentzat lotsagarria litzake hemen euskera galtzea. Eta, behar bada, orain gogor ekiten ez badautsagu gero beranduegi izango dogu.

Azkenez, eskerrik beroenak Erriko Agintariei, bai ikastolarako tokia emon dabelako, bai jai eder hau egiten alegindu diralako. Bai, jaunak, nun lan egin asko daukazue eta gogor ekingo dautsazuela uste dot.

Eskerrak baita Euskaltzandikoei. Izan daigula zuen etorrera hau gure euskerari aurrerakada bat emoteko.

Eskerrak, azkenez, billera eder hau gertatzen saiatu diranai, batez bere txistulari, dantzari, andereno ta arduredunei. Baita bere, Arabako Diputazioari bere diru-laguntzagaitik.

Eta zuoi, Aramaiotar guztioi dei eta deadar gogor bat. Geure eskuetan dago gure euskeraren etorrera. Geuk gura badogu betik iraungo dau euskereak Aramaionan. Geu arduratzen ez bagara, kanpotik ardura ta laguntza asko artu arren, alperrezkoak izango ditugu.

IDATZARAUAK

IDATZARAUETAZKO BATZORDEAK PRESTATU DUEN II. TXOSTENA

Loturik ala bereiz

idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak

(Txostenaren II. Atala)

Badira, aurreko atalean aztertutakoez gainera, beste hiru partikula axolarik handienetakoak, bai maiztasunagatik eta bai esaldian betetzen duten zereginagatik ere. Hona hemen zein diren: 1 *Ez*, ezetza adierazteko hitza. 2 *Bait*, aditz aurreko aurrizkia. 3 *Ba*, baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia. Partikula hauen erabilkeran batasuna ez da beti gorde. Horregatik, gaiaren axola ikusiz, eta hauzi hau xehekiago eta astiroago aztertu nahiz, hiru partikula hauekin Atal berezi hau osatu nahi izan du Batzordeak.

1

«Ez», ezetza adierazteko hitza

Partikula hau ondoko aditzari lotua, ala beronetik askatua idatzi behar ote da?

Jar ditzagun jokaera bakoitzak bere alde dituen arrazoiak eta ager dezagun azkenik Batzordeak proposatzen duen erabakia.

a) Loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizio zaharra*. Erabat dago loturik idaztearen alde.

— *Ahoz egiten diren hots aldaketak*. *Ez* partikula horrek, aditzaren aurreko «d» eta «g» letrarekin topo egitean, soinu aldatze batzuk sortzen ditu pronunziazioan, eta aldaketa hoiaren araura idazkera egin izan da (ez beti, baina bai gehienetan). Adibidez: *extu*, *extabiltza*, t. a. Beste batzuetan partikula honen «z» ezabatu ohi da; adibidez: *enuen* (ez nuen). Idazkeran hots aldaketa hoiak hainzat hartu behar baldin badira, badirudi «ez» eta ondoko aditza loturik idatzi behar direla.

— Loturik idaztearen partea segitzen dutenen izenak. Batzordeak iskribuz hartu dituen iritzien artean uste dut bat bakarra da-goela loturik idaztearen alde: J. Etxaide.

b) Partikula hau beti osorik eta aparte idaztearen aldeko arrazoiak:

— Gure aroan ohitura hau orokar bihurtu da. Bai mugaz beste aldekoek eta bai hemengoek, guztiek onartu dute.

— Pronunziazioan gertatzen diren hots aldaketok ez dira hizkuntza idatzian haintzat hartzekoak. Alde eta aldi guztietakoak ere ez dira. (Horrek ez du esan nahi irakurtzean gorde behar ez direnik.)

— Aparte idaztearen aldeko iritziak. Batzordeak iskribuz hartu dituenen artean, honako hauek daude: Erkiaga, Berriatua, Kintana, Berrondo, Mitxelena.

Batzordearen proposamendua:

«Ez» partikula beti osorik eta beti aparte idaztea.

(Euskaltzaindiak 1971go irailaren
24eko batzarrean onartua)

EUSKALTZAIN OSOENGANDIK HARTU DIREN IHARDESPENAK

(Bait eta Ba-ren idazkera)

Jaunak:

Joan den iraileko batzarrean Idatzarauetzako Batzordeak presatutako txostena aztertu zen («ez», «bait» eta «ba»-ren idazkerari buruz). «Ez» partikula aditzetik aparte idaztea erabaki zen. Beste bi punduen gainean, berriz, eztabaida gehiegi luzatu zelako eta batzarrean zeudenen artean iritziak oso barreiatu zirelako, hontara heldu ginen: Euskaltzaindiaren zuzendaritzak euskaltzain oso diren guztiei berriarazko galdera bat egingo ziela iskribuz, eta hauzia, jasotako erantzunen arabera erabakiko zela.

Batzarrearen agindu hori betetzeko, bada, eskutitz bat bidali zitzaion euskaltzain oso diren guztiei, eta eskutitzarekin batean Ida-

tzarauetazko batzorde idazkariak eraturako txostena ere bai, hauzi-pean ziren puntu hoietaz.

Hona hemen, bai eskutitzaren eta bai txostenaren testua ere:

1971 urriak 10

euskaltzain jauna

Jaun agurgarri eta adiskide maitea:

Ongi dakizunez, joan den irailaren 24 ean Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian. Euskera idatziaren arauak estudiatzeko jarri zen Batzordeak hiru puntu ekarri zituen: 1 «Ez» aditzari lotua ala askatua idatzi behar ote den. 2 «Bait» aditzari lotua ala askatua idatzi behar den; edo ta bereizkuntza egin behar den (baldintzazkoa denean lotua, eta bestela askatua).

Lehendabiziko punda errazki erabaki zuen batzarrak: «Ez» beti askatua idatz dedila. Beste punduetan, ordea, iritziak oso zeuden parekatuak. Orduan, eta hauzia finitzeko, zera erabaki zen: Euskaltzaindikozuzendaritzak, iskribuz, euskaltzain oso guztiei galdera berezi bat egitea, eta hoiereantzun eta botoen araura erabaki dezala.

Hau da, bada, galdetzen zaizuna: Aditz aurreko «bait» eta «ba»-ren idazkeraz zer-nolako erregela eman behar luke Euskaltzaindiak? Alde bateko eta besteko arrazoiak begien aurrean izan ditzaun batzordeko idazkariak prestatu duen txostena bialtzen zaizu.

Zure aburuaren begira gelditzen da Euskaltzainburuaren izenean,

J. L. LIZUNDIA, Idazkari-ordezkoa.

IDATZARAUETAZKO BATZORDEA

Joan den iraileko batzarrak erabaki bezala, bana banaka eta iskribuz bi puntu hauen gainean galdera berezia egiten zaie euskaltzain oso guztiei:

1

«Bait», aditz aurreko aurrizkia

Hiru eratara idazten da aurrizki hau: a) loturik, b) aparte, d) marratxo batekin berezia.

a) Loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizio zaharra*. Erabat dago loturik idaztearen alde. Eta gaur eguneon ere mugaz beste aldean eta bai hemengo aldean ere batzuek antzinako erara idazten dute.

— *Ahoz gertatzen diren hots aldaketak*. Aurrizki honek («ez» hitzarekin gertatzen den bezala), aditz aurreko «d» eta «g»-kin topo egitean hots aldaketa batzuk sortzen ditu pronunziazioan, eta aldaketa hoi en araura idatzi egin izan da. Adibidez: *baitu, baita, baika-biltza*... Hots aldaketa hoiek idazkeran haintzat hartu behar baldin badira, badirudi aditzari loturik idatzi behar dela.

b) Aparte idaztearen aldeko arrazoiak:

— Ohitura hau gure mendean asko zabaldu da, nahiz eta orokarra ez izan.

— Badu bentaja bat: partikula bera hobekiago nabarmentzea, eta fonetika lege hoiei kasu egin gabe, beti osorik eta den bezala agertzea. (Horrek ez du esan nahi irakurtzean lege hoiek gorde behar ez direnik.)

d) «Bait» aurrizkia marratxo batez aditzari elkartzeko ohitura ere zerbait zabaldu da gure egunotan. Marratxoa kasurik beharrezkoenatarako bakarrik gorde behar zela erabaki zen, eta hemen ez dugu uste horren beharrezkoa denik.

Batzorde idazkariaren proposamendua:

«Bait» aurrizkia beti aparte idaztea.

Oharra.—«Bait» aurrizkiak badu heste aldaera bat: «bai». Hau ere onartzen da, noski, eta bestea bezalaxe beti aparte idatziko da.

2

«Ba», baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia

Hiru jokaera eta iritzi aipa ditezke hemen ere: a) Partikula hau beti loturik idaztearen aldekoa; b) Beti aparte edo bereziturik idaztea nahi duena; d) Baldintzazkoa loturik eta baietzazkoa aparte idaztearen aldekoa. Hona hemen bana banaka jokaera bakoitzaren aldeko arrazoiak.

a) Partikula hau beti loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizioa* erabat dago loturik idaztearen alde. Tradizio hori ez da lehengoa bakarrik; orain ere horrela idazten dute mugaz beste aldean, eta hemengo aldean ere bai batzuek.

— *Era honen abantailak: erraztasuna.* Ba guztiak berdin idazteaz alde batetik betiko ohitura segitzen dugu, eta bestetik lasaitasun bat ematen zaio idatzi behar duenari. Bestela, berriz, analisi gramatikala beti egiten ibili beharra dauka eta traba nekagarri bat ezartzen zaio: berariaz eta ohartuki konturatu behar da ia *ba* hura baiezkoa ala baldintzazkoa ote den. Kontuan eduki behar dugu gaur eguneon idaztea ez dala klase hautatu baten monopolioa, herri osoaren ondasun edo ondarea baizik; eta horrelako analisi eta jakintzak eskatzen dituzten erregelak, ahal dela, aurreratu egin behar zaizkiola jendeari, jakintza hoiek ez bait daude denon eskuetan.

b) Partikula hau beti aparte idaztearen alde. Egia esan, jokaera honek ez du bat ere tradiziorik bere alde.

d) Baldintzazkoa denean loturik. Baiezkoa denean, aparte. Jokaera honen arrazoiak:

— Gure mendean ohitura hau pixka bat zabaldurik dago, orokarra ez bada ere.

— Idazleari nekea ematen zaio, baino irakurleari argitasuna.

Batzorde idazkariaren proposamendua:
«Ba» guztiak berdin idatz ditezela, hau da:
beti aditzari lotuak.

Oharra.—«Ba» guztiak esatean, aditz aurrekoak esan nahi dela bistan da. *Omen*, *Othe* eta *Ahal*-en aurrean datoztenak aparte idatzi behar direla, aurreko Atalean erabaki bait zen.

1971eko urriaren 10ean.

* * *

Orain bada, jaunak, inkesta edo iskribuz egindako auteskunde honen ondorioak hauetxek izan dira.

Jaso diren ihardespak: 15.

Bertan datozen iritziak sailka jarri ondoren, honela banakatzeko dira:

«Bait» aurrizkiari buruz:

Lotua idaztearen alde: 8.

Askatua idaztearen alde: 7 (baina azkeneko hauetatik batzuk nahikoa ezbai daude, eta kartaz diotenez berdin emango lukete botoa loturik idaztearen alde ere).

Gauzak horrela daudelarik, eta iritziak hain parekatuak direnez gero, zuzendaritzak uste du hobe dela puntu hau oraingoz erabaki gabe uztea. Beraz, libre izango da, oraingoz, nahiz batera nahiz bestera idaztea.

«*Ba*» *aurrizkiari buruz*:

Hemen, berriz, aburuak honela datoz sailkatuak:

Ba guztiak askaturik edo aparte idaztearen alde: 1.

Berezketa egitearen alde (hau da, baldintzazkoa era batera eta baietzazkoa bestera jartzearen alde): 3. Gainera, boto auk ez datoz bat beren artean. (Batek, esate baterako, nahi du kasu batean aposrofua eta bestean marratxoa jar dedin: beste batek, berriz, bata loturik eta bestea aparte jartzea nahi du, bat ere markarik gabe, ...)

Ba guztiak loturik idaztearen alde: 11.

Beraz, batasun handi bat lortu da puntu honetan. Uste dut, bada, puntu hau erabakitzean eman behar dela. Aditz aurreko *ba* guztiak, bada, aditzari loturik idazteko eskatzen eta gomendatzen du Euskaltzaindiak.

Gainerakoan, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak eskerrak ematen dizkie euskaltzain numerokoei puntu hauek argitzen eta ahal den neurrian erabakitzen lagundu dutelako. Uste dugu, gainera, espezientzia hau probetxugarria izan dela. Batzarrean, alegia, luze tratatu eta astindutako gai batzuei, inoiz, prozedura honen bidez buru eman dakiekela ikusi da.

Jasotako erantzunak Euskaltzaindiaren artxibuan gordeko dira, egiztapen eta sinestamendu gisa.

Donostia, 1971, azaroak 26.

IDATZARAUETAZKO BATZORDEAREN BERRIZTATZEA

Jaunak:

Euskera idatziaren arauak aztertuz eta ahal dela finkatuz eta erabakiz joan zedin, Idatzarauetazko Batzordea jarri zen. Batzorde honek joan den urtean barrena egin du bere lana eta ahal izan duen eran bere txostenak presentatu dizkio Batzarreari. Eta honek hauetatik batzuk onartu eta erabaki egin ditu.

Batzorde honen idazkari izan naizen aldetik, batzordearen buru den Mitxelena jaunarekin eta bai beste zenbaitekin ere mintzatu izan naiz, heldu den urtean batzorde honek estudiantarako zein sail hautatuko duen jakin nahiz. Eta konsulta hoiengandik ondoren hauxe pentsatu dugu: alegia, euskal leku eta herrien izendegia prestatzea. Denek aho batez aitortzen dute zer nolako nahaspila den gure artean. Euskal aldizkariak eskutan hartu besterik ez dago, hori ikusteko. Gure herrien izenak euskeraz nola diren askotan ez dakigu, zehatz behintzat. Batak esango dizu *Oñate*, besteak *Oñati*, besteak *Oinati*. Batak *Bilbo*, besteak *Bilbao*. Batak *Galdakano*, besteak *Galdakao*, besteak *Galdako*, ta abar. Herritarren izenaz (hots, gentilizioaz) berdin gertatzen zaigu. Nola esan behar da: *abadiñarra* ala *abadiñotarra*, *durangotarra* ala *durangarra*? Xehetasun hauek herrian bertan edo herri hartatik gertu xamar bizi direnek jakiten dituzte, baina urrutikoek ez.

Nolanahi ere, Nomenclator ofizial baten beharrean gera, eta hori, inork egitekotan, Euskaltzaindiak behar du egin. Eta Idatzarauetazko Batzordeak datorren urterako lan horixe hautatu du.

Aramaioko batzarrerako Mitxelena jaunak txosten labur baina mamitsu bat prestatu zuen gai hontaz. Eta dakizuten bezala, Aramaioko egunean irakurria izan zen.

Ez naiz ni hemen hasiko sail berezi honek dauzkan zailtasun, katramila eta problematika berezia azaltzen. Baina zerbait esan beharra dago, gaiak berak eskatzen duen bezalako batzordea jartzen asma dezagun. Konplejidade handiko saila bait da hau.

Lehenik, gaiak biltzen izango ditugu lanak. Kontutan euki behar harko ditugu erderazko izen ofiziala, eta erderaz mintzatzean inguru hartakoek erabiltzen dutena (beti ez bait dira berdinak). Euskeraz mintzatzean gaur esaten dena eta behinola esaten zena (hau iskribu

zaharretatik jakin behar da). Euskera galdu den eskualdeetan franko aldiz toponimia xehean gorde da antzinako euskal izena. Gaiak biltzen bakarrik lan izugarria dago, bada, eta eskualde bakoitzean lankideak bilatu beharko dira.

Eremua ere zabalegia izan ez dedin, mugatu beharko dugu. Oraingo, behintzat, toponimia handia (hots, «toponimia mayor») hartuko genuke bakarrik: herrien izenak, hauzo handitxoak ere bai, zenbait mendi eta ibai (aipatuenak soilki). Euskalerritik kanpora egonarren, badira zenbait ziudade ospetsu euskeraz izen berezia dutenak edo behintzat euskeraz molde berezi batean izendatzen direnak, eta hoiek ere jarri behar lirake delako Nomenclator hortan (*Bordele, Pabe, Akitze, Sibiliala...*).

Jakina da «a» organica delakoaz dagoen istilua. Badira herri izen batzuk erderaz a-kin bukatzen direnak, baina euskeraz ez dute behin ere a-rik izan. *Alsasua/Altsatsu, Bacaicoa/Bakaiku...* Beste batzuek, berriz, «a» iraunkorra dute: *Nafarroa, Donostia, Pasaia*. Eta bien artekoa ere frankotan gertatzen da: hots, deklinazioko zenbait kasutan «a» hori beharrezkoa da, eta beste batzuetan beharrezkoa da kentzea: *Bizkaia, Bizkaitaren, Bizkaitari, Bizkaian*, baina *Bizkaiko, Bizkaira, Bizkaitik*, ta abar. Xehetasun hoiek ere kontutan hartu beharko dira.

Herri izen batzuk mendeetan barrena aldatu egin direla bada-kigu. Askotan bokalen arteko «n» galtzetik etorri da aldaketa: *Lazkano/Lazkao*. Baina badira lege horrekin zer ikusirik ez duten aldaketak ere. Beste batzuetan antzinako leku izena eta hiri izen berriagoarena ez datoz bat. *Arrasate/Mondragoe, Gasteiz/Vitoria, Ariznoa/Bergara, Hagurabin/Salvatierra*, t. a.

Zahar zaharra hartu behar ote da, ala berri berria eta bat ere tradizioz ez duena? Beharbada bien artekoa hautatzea izango da irizpide zuzena. Nolanahi ere, izango ditugu istiluak. Eta kasu bakoitza bana banaka estudiatu beharko da. >

* * *

Gai hortaz eginek dauden lanen bibliografia bat osatu beharko du batzordeak, hasteko. Izan ere, badira lan batzuk gure sail honetarako laguntasun ederra eman dezaiguketenak. Mitxelena, Aramai-